NELLY ET MR. ARNAUD / NELLY Y EL SR. ARNAUD

# Pasio lasaia

ALBERTO BARANDIARAN

Pasioaz hitz egiten dugunean, gorabehera emozionalak, sukarraldi biziak, ustekabeko amaierak eta desengainuak etorri ohi zaizkigu gogora. Zinemak oso lan eraginkorra egin du mendebaldeko kanonean finkatu den pasiozko harremanaren imajinarioa ezartzeko, eta hamaika dira dramaz beteriko istorioak kontatzen dituzten filmak. Film honetan, ordea, pasioa lasaia da, sotila, lineala, barea. Eta, hala ere, oso sakona eta oso benetakoa da hemen kontatzen den maitasuna.

Claude Sautetek behin baino gehiagotan landu zuen, bere filmografian, bikoteen eta, are, hirukoteen arteko harremanaren harrobia, baina beharbada film honetan lortu zuen ahalegin horretan gorena, hemen eztanda egiten baitu haren beste filmetan antzematen den giro eta nahi horrek: maitasuna estridentziarik gabe marraztea; ez-maitasuna ere iradokitzea, inora iristen ez den harremanaren gora behera guztiak barne. Aktoreen lana aparta da eta gidoia, oso delikatua.



DAVID KOSKAS

*Nelly et Mr. Arnaud* (1995) filmaren kontakizuna tranpaz beteta baitago, itxuraz sotila eta akademikoa bada ere. Nellyri (Emmanuelle Béart), harreman triste eta etorkizunik gabeari eutsi nahi dion testu zuzentzaileari, ustekabeko aukera zabaltzen zaio hirugarren lagun baten bidez epaile bat ezagutzen duenean. Arnaud jaunak (Michel Serrault) berehalako erakarmena sentitu du neska gaztearekiko, eta bere bikotearekin partekatzen dituen zorrak kitatzeko adina diru eskaintzeaz gain, lana ere proposatu dio: argitaratu nahi lukeen liburua zuzentzea alegia. Hortxe hasten da Nellyren bizitza berria, aurretik zeukan harremana eten ez ezik, maitatzeko eta maitatua izateko bi aukera berri irekiko dizkiona: bat, Arnaud jaunarekin; bestea, epaile zaharraren liburua editatuko duen argitaratzailearekin.

Zuzendariak, maisutasun handiz, hiru harreman horien arteko joko sotila proposatuko digu orduan: ohiko harreman osoa argitaratzailearekin; harreman hasieran zehaztugabea baina gero eta interesgarriagoa epaile jaunarekin, eta erabat amaitzen ez den harreman etsigarria bikote ohiarekin. Filmak eraman egiten gaitu Nellyren gorabehera emozionalen txirristan, baina protagonistak, egiaz, lasaitasun harrigarria erakusten du une oro: hiru gizonak aztoratu, ilusionatu edo etsitzen diren bitartean, berak gauzak gero eta garbiago dituela ematen du.

Oso interesgarria eta argigarria da Arnaud eta Nellyren artean Sautetek proposatzen duen jokoa. Epaile jaunarentzat, bizitzaren azken urteak dira, eta etapak itxi nahi ditu: bere memoriak amaitu; oroitzapenak besterik ez dakarzkion liburuak begi bistatik kendu; emazte ohiarekin dituen lotura eskasak eten behin betiko. Nellyrentzat, ordea, dena berria da, eta aukera oro baliatu nahi ditu: ez du argitaratzailearekin hasi duen harremana hautsi nahi; ez du bikote ohiaren arazoen aurrean ez-ikusiarena egin baina, era berean, epaile jaunarengan antzematen duen pasio ia sekretuak erakarri egiten du. Harekin duen harreman fisiko bakarra, baina, ohe ertz baten inguruan gertatzen da: “Nahi duzu alde egin dezadan?” galdetzen dio gizonak, jakinik adinak pareta bat altxatzen duela bien artean. “Ez, emadazu eskua” esaten dio gazteak, eder eta lirain, lokartzen den bitartean.

Behin baino gehiagotan aipatu da *Nelly et Mr. Arnaud* filmaren bi protagonisten arteko agurra dela zinemaren historian kontatu den despedidarik ederrenetako bat. Ia hitzik gabe, ezinezko maitasunaren erretratu oso benetakoa lortzen du zuzendariak, eta ikusleak irribarre gozo eta, era berean, triste batekin uzten ditu.

UN COEUR EN HIVER / UN CORAZÓN EN INVIERNO

# Cumbre del estilo depurado de Sautet

JORDI BATLLE CAMINAL

Es obvio que, en un cine tan hablado, tan bien hablado, como el de Sautet, la figura del guionista es fundamental. Entre 1970 (*Las cosas de la vida*) y 1983 (*Garçon!*), la aportación en argumento y diálogos de Jean-Loup Dabadie fue enormemente fructífera, no en vano esos trece años conforman la etapa más fecunda del realizador. Para sus últimos tres títulos (*Quelques jours avec moi*, *Un corazón en invierno* y *Nelly y el Sr. Arnaud*), Sautet contó con Jacques Fieschi, que había debutado como guionista en *Police*, de Maurice Pialat, con el refuerzo en los dos primeros de Jérôme Tonnerre, guionista prolífico y todavía activo: este año hemos podido ver su firma en la notable *Maigret*, de Patrice Leconte.

Sería, sin embargo, un error quedarnos con la escritura, por muy selecta que sea, como la principal virtud del cine de Sautet. Por lo menos otras dos brillan a semejante altura: su magistral dirección de actores y actrices, primeras espadas del ruedo francés de las que extrae sus mejores sinfonías, y la puesta en escena, rigurosa y nunca enfática, tan fina que a veces puede dar la sensación, a primera vista, de academicismo, cuando lo que en realidad cuenta es su atmósfera (Sautet es “un cineasta más atmosférico que narrativo”, decía Thierry Jousse), la elegancia de una cámara siempre atenta a la esencia de las cosas y la delicadeza del tono. Las primeras imágenes de *Un corazón en invierno* son, en este sentido, ejemplares: Stéphane (Daniel Auteuil) restaura un violín en el taller que comparte con su jefe, Maxime (André Dussollier), en un silencio plácido que solo rompen el suave sonido del pincel acariciando la madera del instrumento y, después, la voz en *off* del propio luthier contándonos su prolongada y peculiar relación con Maxime.



BENOIT BARBIER | FILM PAR FILM

Pronto observamos que Stéphane es un tipo introvertido, de pocas palabras, enormemente solitario, características que llaman la atención de la violinista Camille (Emmanuelle Béart), la novia de Maxime, que se siente atraída hacia él. Stéphane, como protegiéndose con una coraza y frío como un bloque de hielo, la rechaza sistemáticamente. Como de costumbre en Sautet, el restaurante juega un papel esencial. Camille y Stéphane se cruzan unas primeras y breves miradas cuando éste cena con Maxime. Escenas después, Stéphane y Camille toman algo en una mesa y ella intenta extraer de él, sin éxito, algún sentimiento, algo parecido a lo que sucederá más tarde cuando los tres compartan una misma mesa, Maxime se ausente unos minutos y Camille le reproche su conducta. Habrá un cuarto, tenso y violento encuentro en el restaurante, pero antes, en el interior de su coche, Stéphane humilla a Camille de manera cruel. ¿Está jugando Stéphane, vilmente, con ella y con su compañero Maxime, a quien tanto admira y quizás envidia?

Sobresalientemente escrita y dialogada, filmada e interpretada, *Un corazón en invierno* es para muchos estudiosos de Sautet su obra cumbre. Es, en cualquier caso, su película más depurada, más desnuda y limpia. Y con una ‘respiración musical’ muy apropiada en un contexto donde las composiciones de Ravel son frecuentes: ya los créditos iniciales vienen acompañados por su *Trío para piano, violín y violoncello*, anuncio de triángulo sentimental. No faltan las habituales salidas a la casa de campo, con sus cenas al aire libre y la distinguida presencia, como secundarios, de Maurice Garrel, padre de Philippe, y el veterano Jean-Luc Bideau, actor memorable en films de Goretta, Tanner o Tacchella, entre otros.

